

HUHEZIKo ikasle batek irabazi du euskarazko proiektu onenaren saria

2011/12/02

Sari hau Mondragon Korporazioko Euskara Batzordearen ekimenez sortu da, eta helburua du ikasleek unibertsitatetik lan mundura jauzi egiten dutenean ikasketa amaierako proiektuak euskaraz egitea. Mondragon Korporazioak bere Plan Estrategikoan jaso zuen erronka hori, eta 2010ean lantalde bat sortu zen Mondragon Korporazioko eta Mondragon Unibertsitateko fakultateetako kidez osatuta sari hori abian jartzeko. Mondragon Unibertsitateko ikasleek, Mondragon Korporazioko erakundeetan egin dituzten proiektuak aztertu eta ebaluatu dituzte hiru fakultateetako bina kidek eta Mondragon Korporazioko ordezkari batek.

Proiektu asko

Guztira 17 proiektu aurkeztu dira sarira Enpresagintzatik, Goi Eskola Politeknikotik eta HUHEZItik. Aurkeztutako lan guztiak maila tekniko altuko proiektuak dira, 9 notatik gorakoak eta proiektu irabazlea euskaraz ondoen idatziatako lana izan delako nabarmendu da.

Epaimahaia

Epaimahaia fakultate bakoitzeko bi kidek (Joxe Aranzabal, Arantza Ozaeta, Aitor Lizartza, Rafa Altuna, Xabier Arrasate eta Pedro Urteaga) eta Mondragon Korporazioko ordezkari batek (Mikel Lezamiz) osatu dute. Anlisi sakona egin ondoren, ados jarri dira lanak puntuatzerako orduan, eta aho batez aukeratu dute lan saritua.

Aurtengoa, sari horren 1. edizioa izan bada ere, berau urtero antolatzeko asmoa dago. Beraz, aurtengoa hasiera besterik ez da izan. Hurrengo edizioetan partaide kopurua hadiagoa izatea espero da.

